

Euskal AEko esportazioek % 4,5 egin dute gora 2025eko apirilean

1.132 milioi euroko merkataritza-saldo positiboarekin, % 2,3koa izan da hazkunde metatuta 2025eko lehen lau hilabeteetan

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko ondasunen esportazioak 2.652 milioi eurokoak izan ziren 2025eko apirilean, aurreko urteko hil berean baino % 4,5 handiagoak. Energiatzkoak ez diren esportazioek % 1,7 egin zuten gora eta energiatzkoek % 57,3.

Inportazioen kasuan, % 14,0ko beherapena izan da, energiatzkoak ez diren produktuen kasuan % 7,8koa eta energia-produktuen kasuan % 27,8koa.

2025eko apirilean, merkataritza-saldoa positiboa izan zen 378 milioi euroekin eta % 116,6ko estaldura-tasarekin.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Apirila 2025

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Apirila			Apirila		
	2024	2025	Gehikuntza (%)	2024	2025	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	2.537.380	2.651.802	4,5	2.644.150	2.273.568	-14,0
ENERGIATZKO GAIK	128.253	201.779	57,3	820.039	592.334	-27,8
ENERGIATZKOAK EZ DIREN GAIK	2.409.127	2.450.024	1,7	1.824.111	1.681.235	-7,8
URTEKO METATUA	10.066.365	10.297.847	2,3	9.151.424	9.166.174	0,2
ENERGIATZKO GAIK	633.626	466.187	-26,4	2.621.900	2.177.706	-16,9
ENERGIATZKOAK EZ DIREN GAIK	9.432.739	9.831.660	4,2	6.529.524	6.988.469	7,0
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	695.514	751.650	8,1	515.529	542.014	5,1
URTEKO METATUA	2.995.498	3.247.466	8,4	1.903.815	2.251.468	18,3
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.026.134	993.691	-3,2	1.623.507	1.287.785	-20,7
URTEKO METATUA	3.896.929	3.674.154	-5,7	5.490.840	5.009.094	-8,8
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	815.732	906.461	11,1	505.114	443.770	-12,1
URTEKO METATUA	3.173.938	3.376.226	6,4	1.756.769	1.905.612	8,5

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2025eko Ekainaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Hilabete horretan Bizkaiko esportazioek % 3,2 egin dute behera, Gipuzkoan % 11,1 igo dira eta Araban ere % 8,1 igo dira. Esportazio energetikoak, Bizkaian, % 58,3 hazi dira aurreko urteko hil beraren aldean.

2025eko apirilean merkaturatutako produktuak

Produktuen xehetasunetara jaitsiz gero, muga-zergen hamar partida nagusiek esportazioen % 41,2 biltzen dutela ikusten da, guztira 1.093 milioi euro.

Muga-zergen 25 partida nagusien taldearen barruan, nabarmentzekoak dira lau partidatan erregistratutako hazkundeak: "Petrolioaren olio finduak" (% 83,8, 192,6 milioi esportatuta), "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (% 59,2 eta 268,5 milioi esportatuta, hau da, guztizkoaren % 10,1 eta esportazioen rankingean lehen postuan), "Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak" (% 433,1 eta 104,1 milioi esportatuta) eta "Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiarien autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak", 57,8 milioi esportatuta, aurreko urteko hil bereko 257 mila euroen aldean.

Kontrako noranzkoan, "Kautxuzko pneumatiko berriak" % 28,5 jaitsi dira, "Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak" % 12,5 eta "Automobilentzako zati eta osagarriak" % 12,0.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.537.380	2.651.802	100,0	4,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	168.627	268.494	10,1	59,2
Petrolioaren olio finduak	104.764	192.586	7,3	83,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	191.910	168.842	6,4	-12,0
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	19.530	104.117	3,9	433,1
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	110.369	96.569	3,6	-12,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	90.252	64.526	2,4	-28,5
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	257	57.842	2,2	22.390,0
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	36.142	47.128	1,8	30,4
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	38.355	46.921	1,8	22,3
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	58.248	46.455	1,8	-20,2
Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	34.057	39.248	1,5	15,2
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	32.551	36.650	1,4	12,6
Soja-olioa	14.693	34.530	1,3	135,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	29.007	33.772	1,3	16,4
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	35.619	33.248	1,3	-6,7
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	19.557	28.018	1,1	43,3
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbriatura moldeatutako batzuk	21.821	24.543	0,9	12,5
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	19.426	22.594	0,9	16,3
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektritzitate-banaketatara erabiltzeko	21.351	22.499	0,8	5,4
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	24.746	21.801	0,8	-11,9
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	44.960	20.387	0,8	-54,7
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	48.605	20.343	0,8	-58,1
Arrain izoztua xerratu gabe	28.343	20.246	0,8	-28,6
Ardoa, mahats freskoarena	16.273	20.071	0,8	23,3
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	24.367	19.923	0,8	-18,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Ekainaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, eta muga-zergen 25 partida garrantzitsuenei dagokienez, honako hauek metatu dira hazkunde esanguratsuenak: "Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (% 782,5, 21,5 milioi inportatuta, batez ere Alemaniatik, 18,2 milioi), "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (% 298,2 eta 45,9 milioi inportatuta, batez ere Alemaniatik, 32,7 milioi) eta "Petrolioaren olio finduak" (% 26,2, 188,7 milioi inportatuta honako herrialde hauek: Kuwaitetik 60,5 milioi, Estatu Batuetatik 54,9 milioi, Saudi Arabiatik 49,2 milioi eta Indiatik 18,1 milioi, besteak beste).

Aitzitik, atzera egin dute honako hauen inportazioek: "*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*" (% -39,0, nahiz eta inportazioen rankingean lehenengo postuan egon 359,4 milioirekin, hau da, guztizkoaren % 15,8), "*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak*" (% -44,8 eta 43,6 milioi inportatuta, ia guztia Errusiatik), "*Automobilentzako zati eta osagarriak*" (% -25,3 eta 63,2 milioi, erdia Alemaniatik, 33,8 milioi) eta "*Beroan ijetzitako produktu lauak, aleatu gabeko eta txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm*" (% -42,9 eta 45,4 milioi).

ARABA. 2025eko apirileko esportazioak

Araban, esportazioak % 8,1 igo dira aurreko urteko hil beraren aldean. Horren arrazoia, funtsean, honako hauen salmenten portaera ona izan da: "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" (253,5 milioi euro eta % 53,0ko igoera aurreko urteko hil beraren aldean), "*Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabe, burdinazkoak edo altzairuzkoak*" (41,2 milioi eta % 30,7), "*Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak*" (7,8 milioi eta % 227,2) eta "*Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak*" (15,4 milioi eta % 63,7).

Bestalde, "*Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak*" % 12,6 jaitsi dira, nahiz eta 95,8 milioi euro saldu diren. "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" ere behera egin dute (-%28,1).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	695.514	751.650	100,0	8,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	165.663	253.505	33,7	53,0
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	109.670	95.830	12,7	-12,6
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	31.545	41.233	5,5	30,7
Kautxuzko pneumatiko berriak	57.184	41.134	5,5	-28,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	40.389	32.991	4,4	-18,3
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	9.381	15.362	2,0	63,7
Ardoa, mahats freskoarena	14.159	14.479	1,9	2,3
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	12.884	11.970	1,6	-7,1
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	2.392	7.827	1,0	227,2
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	6.027	7.426	1,0	23,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Ekainaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. 2025eko apirileko esportazioak

Bizkaiko lurralde historikotik egindako esportazioek % 3,2 egin dute behera, besteak beste, "*Automobilentzako zatiak eta osagarriak*" (% -13,4 eta 9,1 milioi gutxiago) edo "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" (-%29,3 eta 9,4 milioi gutxiago) bezalako produktuetan izandako beherapenen ondorioz.

Kontrako noranzkoan, nabarmen hazi dira "*Petrolioaren olio finduak*" (% 85,4, aurreko urteko hil berean baino 87,6 milioi gehiago), "*Soja-olioa*" (% 135,0 eta 19,8 milioi gehiago) edo "*Erabilera tekniko industrialetarako animalia edo landare jatorriko koipeak eta olioak*" (% 612,7 eta 15,2 milioi gehiago).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.026.134	993.691	100,0	-3,2
Petrolioaren olio finduak	102.613	190.216	19,1	85,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	68.167	59.029	5,9	-13,4
Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	33.814	38.493	3,9	13,8
Soja-olioa	14.693	34.530	3,5	135,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	21.719	24.418	2,5	12,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	32.228	22.787	2,3	-29,3
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	28.065	22.375	2,3	-20,3
Arrain izoztua xerratu gabe	27.359	19.584	2,0	-28,4
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	2.479	17.668	1,8	612,7
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	16.351	17.212	1,7	5,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Ekainaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. 2025eko apirileko esportazioak

Gipuzkoako esportazioak % 11,1 hazi dira hilabete honetan, produktu nagusi gehienek portaera ona izan dutelako, hala nola: "*Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak*" (% 451,6 eta aurreko urteko hil berean baino 74,2 milioi gehiago), "*Motor eta sorgailu elektrikoak (talde elektrogenoak izan ezik)*" (% 231,2 eta 16,4 milioi gehiago) eta "*Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariaren autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak*" (57,8 milioi esportatu dira).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	815.732	906.461	100,0	11,1
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	16.433	90.653	10,0	451,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	83.354	76.821	8,5	-7,8
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	0	57.782	6,4	-
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	55.401	44.629	4,9	-19,4
Txorrotetarako artikulua, balbulak eta antzekoak tutuetarako	26.137	34.264	3,8	31,1
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	7.080	23.447	2,6	231,2
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	19.271	22.576	2,5	17,1
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	20.319	18.542	2,0	-8,7
Metal arruntzko giltzarapo, sarraila, morrolio eta giltzak	17.618	18.184	2,0	3,2
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	21.311	17.923	2,0	-15,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Ekainaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2025eko apirileko xede-herrialdeak

Hilabete honetan, esportazio-rankingeko lehenengo postuetan honako hauek daude:

- **Frantzia:** 409,1 milioi euroko ondasunak esportatu diren herrialdea eta % 215,5eko estaldura-tasarekin.
- **Alemania:** 359,2 milioiko balioa duten Euskal AEko produktuak jasotzen ditu, % 101,5eko estaldura-tasarekin.
- **Italia:** herrialde horretara bideratutako salmentak 160,9 milioira iritsi dira, eta estaldura-tasa % 164,5 izan da.
- **Estatu Batuak:** 151,3 milioi euroko balioarekin esportatu da, % 78,7ko estaldura-tasarekin.
- **Erresuma Batua:** 147,9 milioi euro bideratu dira herrialde horretara, eta % 285,0ko estaldura-tasa lortu da.

Herrialde horiek esportazio guztien % 46,3 hartu dute, eta horietako hiru EB-27koak dira, hau da, EB-27ak esportazio horien % 59,7 hartu du.

2025ean URTARRILETIK APIRILERA ARTEKO METATUA: Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 1.132 milioi euroko saldo positiboa izan du eta estaldura-tasa % 112,3koa izan da 2025eko lehen lau hilabeteetako metatuan

Euskal AEko **esportazioak** % 2,3 hazi ziren aurreko urteko aldi beraren aldean, 231,5 milioi euro gehiago. Esportazioen zenbatekoa 10.298 milioikoa izan da aldi horretan.

Bizkaiko esportazioak Euskal AEko altuenak dira, 3.674 milioi guztira; Gipuzkoakoak 3.376 milioi eta Arabakoak 3.247 milioi.

Produktu mota kontuan hartuta, "*Produktu ez-energetikoak*" dira ugariena, 9.831,7 milioi euroekin.

Xehetasunetara jaitsiz gero, esportazioek gora egin dute (% 46,1) honako hauetan: "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" (1.143,2 milioi esportatu dira), "*Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen zatiak*" (% 244,0 eta 213,9 milioi), "*Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiarien autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak*" (% 303,7, 120,5 milioi esportatu dira) eta "*Soja-olioa*" (% 171,9 eta 101 milioi).

Atzerakada handienak honako hauek izan dituzte: "*Automobilentzako zatiak eta osagarriak*" (aurreko urtean baino 68,8 milioi gutxiago, % -8,7), "*Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak*" (113,5 milioi gutxiago, % -20,4) eta "*Petrolioaren olio finduak*" (122,7 milioi gutxiago, % -23,8).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Apirila 2025

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	10.297.847
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.143.219
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	719.516
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	443.811
4	2710	Petrolioaren olio finduak	392.057
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	330.618
6	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	213.920
7	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	209.271
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	204.802
9	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	195.808
10	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsatzailak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	158.440
11	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	136.537
12	9990	Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	127.529
13	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	127.068
14	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	122.739
15	8605	Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	120.502
16	8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	104.754
17	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraio-gailuak, etab.	101.244
18	1507	Soja-olioa	100.984
19	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	90.368
20	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatutako batzuk	90.015
21	7306	Burdinako edo altzairuzko beste tutu batzuk eta profil hutsak	79.996
22	8501	Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	79.061
23	8301	Metal arruntzko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	78.731
24	8483	Transmisio-ardatzak, koljineak, engranajeak, enbrageak, etab.	78.430
25	8702	Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	76.797

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Ekainaren 23a


Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2025eko lehen lau hilabete horietako rankingean, Frantzia da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 15,6rekin (1.605,6 milioi). Frantziaren atzetik, Alemania (% 14,5 eta 1.493,3 milioi) eta Erresuma Batua (% 6,2 eta 641,1 milioi) daude. Horrela, EAEko esportazioen % 36,3 hiru herrialde horien artean biltzen da.

Inportazioen metatua 9.166 milioi eurokoa izan zen Euskal AE osoan. Urte arteko alderaketa eginez gero, aurreko urteko aldi berean baino 14,8 milioi gehiago direla ikusten da. % 0,2ko igoera apal horren arrazoia da, neurri batean, Arabako lurraldean, 2.251,5 milioiko inportazio metatuekin, aldi horretan izan den % 18,3ko hazkundea; hau da, 2024ko aldi berean baino 347,7 milioi gehiago. Gipuzkoako inportazioek ere 148,8 milioi egin dute gora (% 8,5), 1.905,6 milioi guztira. Bizkaian % 8,8 jaitsi dira (481,7 milioi gutxiago), 5.009,1 milioi guztira. "*Produktu energetikoen*" inportazioek % 16,9 egin dute behera, baina "*Produktu ez-energetikoen*" inportazioek % 7,0 egin dute gora.

Aldi horretan inportatutako produktu-partidak aztertuz gero, rankingeko lehen postuan "*Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak*" daude (1.362,6 milioi, aurreko urtean baino 424,2 gutxiago, hau da, % 23,7 gutxiago); inportatutako tonen bolumenari dagokionez ere % 18,1eko atzerakada egon da, 3.400.007 tonatik 2.783.621 tonara. Bigarren postuan "*Petrolioaren olio finduak*" daude (606,1 milioi inportatu dira, 45,1 milioi gutxiago, eta % 6,9ko atzerakada). Partida horien atzetik datoz "*Automobilentzako zati eta osagarriak*" (% -15,4 eta 283,5 milioi inportatuta) eta "*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak*" (204,4 milioi inportatuta, hau da, % 20,3ko gehikuntza).

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 1.131,7 milioi euroko saldo positiboa izan du aldi horretan, eta estaldura-tasa % 112,3koa izan da.



Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62